Jarri entzuteko egoeran*

Ruth Wajnryb

Zuen ikasleak eroso eserita daudenean, probatu kontu-kontaketarako Ruth Wajnryb-en teknika entzumena eta narrazio-trebetasuna hobetzeko. Duela gutxira arte Ruth TESOLeko[1] irakasle-prestakuntzaren buru zen Australian, Hegoaldeko Gales Berriko Unibertsitatean, baina orain bere kontura lan egiten du irakasle-prestakuntzan eta zenbait material idazten.

Istorio- edo kontu-kontaketa da artikulu honen muina, hizkuntzako ikasgelan irakasbide bezala erabiltzeko. Lehen aldiz Mario Rinvolucrik aurkeztu zidan metodoa, duela zenbait urte Australia bisitatu zuenean[2]. Ordudanik, mota ezberdinetako hizkuntz ikasle askori kontatu izan dizkiot istorioak: bai ingelesaz kontaktu gutxi zuten behe-mailakoei, baita ikasle nahiko aurreratuei ere, operazionalki komunikatiboak izan arren, estrukturalki maila guztiz egokia ez zutenei. Oso moldagarria da metodoa eta erraz egoki daiteke talde eta maila ezberdinetara.

Zergatik kontu--kontaketa?

Ikastaldeetara egokitzeko erraztasunaz gain, metodoak badu beste zenbait abantaila garrantzitsu ere:

- Kontu-kontaketaren helburua berez da komunikatiboa. Kontua ez da ikasgai izaten, transmisio-bide baizik.
- Linguistikoki benetako edo zintzoa da kontu-kontaketa. Ahozko hizkuntza erabiltzen du –entzuna izatekoa–, ez idatzizko hizkuntza –berez irakurria izatekoa baina desegokiro entzunezko ulermenerako erabilia–. Hizkuntza, natural eta espontaneoki kodekatua, oso urruti dago ohizko TESOL materialetako prosa landu eta zaharkitutik. Ahozko hizkuntza denez, mota honen berezko osagai guztiak ditu bere baitan: zirkularra da, erredundagarria, ez-ekonomikoa, zehatz egituratu-gabea eta zalantzak, atzera-itzuliak eta erritmo, azentu eta doinu mailako aldaketak ditu ezaugarri.
- Erreala da kontu-kontaketa. Etengabe egiten du hori jendeak: lagunek, auzokoek, ezkontideek (egunaren amaieran, esate baterako). Zurrumurru, txutxumutxu eta gertakari barregarrien eremuan sartzen da. Hitz batean, ikasgelara mugatzen ez den errealitatea da.
- Kontu-kontaketa ez da belarri-gauza bakarrik. Esandako hitzen bidez bezainbat hizkuntzaren inguruko laguntza paralinguistikoaren bidez lortzen ditu entzuleak atzeman eta ulertzea. Zentzu honetan, entzumen-prozesua herstura edo antsietate gutxiagoz egitea ahalbidetzen du, eta faktore hau bera lagungarri da ulerkuntzarako.

ZUTABE 25 (1991), 29-34 orr.

• Tradizio humanistikoaren parte den neurrian, kontu-kontaketa ikaslearen esparru afektiboan ere sartzen da, horrela gogoraraziz ikaskuntza ez dela inola ere ahalegin kognitiboa soilik.

Metodoa azaltzeko adibide ona da *Emazte burutsua*-ren istorioa. Himalayatako ipuina da eta Michael Quinn lankideari zor diot beronen berri eman izana. Lau urrats nagusi ditu metodoak: **a.** aldez aurretik hiztegia landu, **b.** eskematizatu, **c.** iragarri eta eztabaidatu, **d.** birkontatu.

Aldez aurretik hiztegia landu

Kontaketarako prestatu egin behar dira ikasleak, lehenik bidean egon litezkeen "oztopo lexikalak" kentzen ditugula ziurtatuz. Honela gauza ezezagun gutxiago agertuko da ondorengo esperientzian eta entzunketa erraztu egingo da. Istorio honetan, aldez aurretik lantzeko hiztegi-zerrenda honako hau izan daiteke (baina, noski, ikastaldearen arabera beti ere):



- merkatari
- atzeratua
- kezkatu, arduratu
- aholku
- berdin da
- bete
- estali
- arrakasta
- esanahia
- errukitu
- topo egin
- eztei
- konturatu
- nazkagarri
- lokatza
- zuhur
- asmo
- bitxi



Eskematizatu Idatzi istorioaren eskema, behar-beharrezko informazioa emanez. Funtsezko osagarriak bakarrik sartu argumentuaren eta pertsonaien garapenaz. Hauek "oroigarriak" bezala izango dira kontalariarentzat. Narraketaren inguruko eta berezko apainduria guztiak automatikoki sortzen dira kontalaria kontatzen ari den bitartean. Ahozko hizkuntzaren berezko erredundantziak espontaneoki agertzen dira. Ez dute prosan "kaltzifikaturik" edo finkatuta egon behar; horrela baldin badaude, kontalariak irakurtzeko –eta ez kontatzeko– tentazioa izango bait du, eta orduan hizkuntza idatzia edukiko dugu irakurtzeko, eta ez ahozko hizkuntza entzuteko.

Gainera, "kontalaria" "irakurle" bihurtzen bada, arreta testuan jartzen du, entzulearengan jarri beharko lukeenean. Kontalariaren begiek entzulearen aurpegia (eta bertan islaturiko ulerkuntza!) bilatu beharko lukete, eta ez orriko testuaren hitzak. Aurrebaldintza hauek garrantzitsuak dira, ahozko hizkuntza espontaneoa sortzen bait dute, linguistikoki esperientzia zintzo edo benetakoa ziurtatuz honela.

Emazte burutsua istorioaren eskema

Behin batean - merkatari aberats bat - etxe handia - diru eta zerbitzari asko - baina zoriontasunik ez - seme bat atzeratua - ez oso argia - aita kezkatuta - "zer gertatuko semeari ni hiltzean?"

Semeari aholkuak ematea erabaki - dei egin eta esan:

1 Ez joan eguzkitan etxetik dendara.
2 Arroza jan egunero.
3 Emazte berriarekin ezkondu astero.

Semeak esan - "Ez dut ulertzen" - aitak erantzun: "berdin da, denborarekin ulertuko".

Urte batzuk geroago - merkataria hil - semeak aitaren aholkuak bete nahi - diru asko gastatu - etxetik dendara joateko bidea estali - arroza bakarrik jan - emaztea aurkitzen ahalegindu, arrakastarik gabe: herriko neska guztiek jakin aste betera utziko zituela.

Herrian - Miriam izeneko neska - hiru aholkuen kontua entzun - berehala ulertu esanahia - semeaz errukitu - ezkontzea erabaki.

Semeak Miriamekin topo egin - maitemindu - ezkondu egin nahi - baina aitaren hirugarren aholkuaren berri eman - neskak erantzun: "badakit, ez arduratu" - eztei bikainak - festa handia - soinujoleak - gonbidatuak - ondo pasa denek.

Aste bat geroago - semeak emaztea utzi behar konturatu. Gauean, esan zion: "ekarri arroza". Miriamek platerkada ederra eraman - Semea haserre: "nazkagarria da hau. Ekarri beste bat, arrainaz". Miriamek arroza arrainaz ekarri - semeak esan: "kendu bistatik! Nahiago lokatza jatea" - Miriamek platerkada lokatza ekarri - semeak esan: "alde!, ezin nerekin eduki. Aitaren aholkua bete behar".

Miriam ondoan eseri - esan: "entzun - aita zuhurra eta bihotz onekoa - asmo txarrik ez".

"Zer esan nahi haren aholku bitxiek?" galdetu semeak.

"Erraza da esanahia ulertzea", erantzun Miriamek. "Entzun..."

Iragarri eta eztabaidatu

1 Bukatu edo eten istorioa amaiera baino lehen.
2 Jarri ikasleak launaka edo bosnakako talde txikitan, aitak semeari emandako aholkuen interpretazioa egiten saiatzeko.
3 Talde bakoitzeko bozeramaleak bere taldearen interpretazioaren berri emango die gainerakoei. Honek eztabaida bizia sortu ohi du eta barre egiteko aukera ere bai.
4 Gero, irakasleak, ikasleek eskatu ondoren normalean, jatorrizko istorioaren kontaketa osatuko du:

Kontuaren amaiera

"Etxetik dendara eguzkitan ez joateko esan zizunean, esan nahi zuen goizean goiz joan behar zenuela dendara, berandu etxeratu eta egun osoa eman dendan lanean".

"Arroza bakarrik jateko esan zizunean, esan nahi zuen neurrizkoa izan behar duzula zeure eguneroko ohituretan, gehiegikeriarik ez egiteko".

"Astero emazte berri batekin ezkontzeko esatean, adierazi nahi zuen ezkontza ondorengo lehen astean bezalaxe maitatu eta baloratu beharko zenukeela zeure emaztea astero".

---

5 Ondoren, eztabaida sor daiteke gelan "gurasoen aholkuak" gaiari buruz. Ikasleak izan litezke edo horrelako aholkuak "hartzeko garaian" daudenak, edo beren umeei "aholkuak emateko" garaian daudenak. Hona hemen eztabaida sortzen laguntzeko galdera batzuk: Eman behar al dizkiete gurasoek aholkuak umeei? Nola? Adi entzun beharko lituzkete seme-alabek? Horrela egiten al dute normalean? Zergatik ez diete sarritan jaramonik egiten seme-alabek? Mindu behar al lituzke gurasoak seme-alaben independentziak? Ez ote litzateke hobe zenbait arlotan gurasoek muturrik ez sartzea?

Birkontatu

Taldeka edo binaka, ikasleei istorioa birkontarazi aurretik, ideia ona da istorioaren urrats nagusiak ateratzea beraiengandik, gero taula modura arbelean idatz daitezkeelarik (ikus beheko eredua). Hau oroimenaren lagungarri gertatzen da narrazioan eta istorioa birkontatzen laguntzen die ikasleei, horrela *kontaketan* kontzentra daitezen, eta ez *gogoraketan.*

Narrazio-taula (eredua)

Urratsak	gaien laburpena
I	merkatari aberatsa semeaz arduratuta
II	aitaren aholkuak
III	aita hil - semea aitaren aholkuak betetzen saiatu, etab.

Azken hitz bat

*Emazte burutsua*ren adibide honek, ikasgelan kontu-kontaketan saiatzeko irakasleak inspira daitezen balio izango duela espero dut. "Kontu-kontalari" motakoak ez direla esateko joera dutenei beren buruekiko iritzi hori proba egin arte atzeratzea proposatzen diet. Baliteke irakasle adina kontu-kontalari mota dagoela atseginez ohartzea (neri gertatu bezala).

Azkenik, artikulu honen izenburua ez da arreta erakartzeko slogan hutsa. Izan ere, kontaketarako ikasleak fisikoki prestatzeko erabiltzen dudan seinalea da. Istorioa kontatu aurretik, entzuteko egoera edo jarreraz hitz egiten diet ikasleei: zein garrantzitsua den eroso esertzea, bakoitza bere ohizko eran: zoruan, zangoak luze-luze, burumakur, begiak itxita, etab. Lehenengoz hau entzutean, ikasleek irribarre ironikoz hartzen dute ideia. Ikasgelako jokaerari buruzko ikuspegi tradizionalagoa dutenek zeharo sinestezinik hartzen dute nire proposamena. Hasieran, irakaslearen eskaria betetzeagatik bakarrik egiten dute; baina, bigarren eta gehienetan hirugarren istoriorako, ohartu naiz (Jarri orain entzuteko egoeran!) esatean berehalaxe betetzen dutela. Une batez abiadura-aldaketa bezalako zerbait gertatzen da, ikasleak, beren egoerak aldatuz, istorioa entzuteko zain jartzen diren bitartean.

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Oharrak

* Ingelesez "Get into your listening positions", *Practical English Teaching* (10. bol, 1. zenb, 1989.eko iraileko alea) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

© Mary Glasgow Publications Ltd., London.

1 TESOL: Teaching of English to Speakers of Other Languages (Ingelesaren irakaskuntza beste hizkuntza batzuetako hiztunentzat).

2 Ordudanik, Mario Rinvolucrik, John Morganekin batera, kontu-kontaketarako liburu paregabea idatzi du: *Once Upon a Time* (Cambridge University Press).

Autorea

Ruth Wajnryb-en irakaslana gehienbat helduekin izan da Australia, Europa, Erdi-Ekialde eta Hego-Amerikan. Zenbait artikulu ere idatzi du ELTeko metodologia eta irakasle-trebakuntzaz, eta bi liburu ere bai: *Grammar Workout* eta *Grammar Workout Two* (Melting Pot Press, Sydney).